baina hau 1929ko krakaren ondoren amaituko da eta hemendik aurrera, 30ko hamarkada depresio handiko hamarkada izango da. Gizartean ere asaldura handia, langabezia handia, ideia nahasketa handiak gizartean,. Ondorioz, hurrengo urteetan, 2. mundu gerra eta erregimen totalitarioak etorriko dira, muturreko ideologiaren gorakada.

Lehen mundu gerran ondoren industria iraultzaren ondoren sortutako produktu askok bultzada handia jasango dute: Automobilak irratia,... Errepideak eraikitzen hasiko dira eta garai hartan kotxea garraio-bide nagusi bihurtuko da.

Autozerbitzuari bide emango dio garapen honek, eta industria garatuko denez, publizitatea ere eta ondorioz agentziak handitzen hasiko dira.

Krackak gauzak erabat aldatuko ditu eta munduko industriaren produkzioa erdira jaitsiko da, eta langabeziak izugarri gora. Orain, askorentzat honek sistema kapitalistaren amaiera suposatzen zuen. Beraz New Yorkeko honek kapitalismoaren amaiera ekarri zuen. Estatu batuetan krisia askoz larriagoa izan zen, hego mendebaldean hurakenen ondorioz uzta bertan behera utzi eta abereak hil ziren. Asko oso aberatsak izateko, ezer ez izatera pasa ziren, dena egunetan galtzen zuten. Dena den krisialdi hau, gainproduktioaren krisi bat izan zen, ez zegoelako kontsumorako ohiturarik (gauzak produzitzen ziren, baina inork ez zituen kontsumitzen), beraz jendearen kontsumoa sustatzeko publizitatea erabili zuten. Hala ere ez zen lortu, publizitatea arruntkerian erori. Ez zutelako nahi publizitatean diru inbertsiorik egin. Horien artean errudunak, garbitasun produktuak izan ziren, haien publizitate sinpleen erruz besteak beste. Publizitate horietan, titular handiak, gehiegikeria handiak eta iruzurrak esanez... Atzerapauso handia izan zen gizarte osoa baitzegoen etsituta jada, laguntzarik gabe zegoen gizartearen gehiengoak eta izua zabaldu zen eta gero eta hobeto bizitzearen ametsa hemen bukatu zen.

4.2 Publizitate Belikoa

Kanpaina nazional izugarriak egin ziren, eta horretarako publizitate estrategia masiboak eta bikainak erabiltzen zituzten. Horien artean, pertsona ospetsuak, atez atekoak, iragarkiak, kartelak, desfileak....

Helburua soldaduak erreklutatzea, adorea ematea, dirua lortzea baina batez ere mezuak/helburuak hiritarren beren aberria maitatzea eta etsaia gorrotatzea ziren. Sentimenduak eragiteko, ausardia zein gorrotoa sortzeko.

Kartel horien adibide dira hauek:

- Alfred Leete = James Montgomery Flagg
- Lord Kitchener= US (Uncle Sam) 5 milioi kopia zabaldu ziren

Kartel ezagun hauek bertsiotze gehiago egingo dira beste kontestu batean eta beste herrialde batzuetan (espainian ere)

Publizitate erreklutatze kanpaina hauei esker erreputazio handiagoa lortu zuen, bere trebeziari esker. Konturatu zirelako publizitatea kapaza zela jendea erakartzeko eta konbentzitzeko.

Gaur egun desodoranteen publizitatean erabiltzen dira mehatsu horiek, hemendik dator isilpeko mehatsua. Eta konturatu ziren, sistema honek jendearen jarrera aldatu zezakeela, beldurra sartuz (ez baduzu erabiltzen ez zaituzte maiteko) gaitzespen sozialaren beldurra hain zuzen.

Emitza hobereak eman zituzten kartelen artean; a todas las jóvenes de Londres, ¿viste de cuál te preferido?

Gerraren ondoren zenbait produktu gailendu ziren; adibidez, erlojua. Zinema ere, baina hau publizitate erraminta baina, propagandarako erabiliko da.

Goebbelsen propaganda ekintzak bereziki ikusgarriak izan ziren, desfileak, mitinak, hegazkinetatik botatutako liburuxka, manifestaldia, irratit bidez igorritako hitzaldiak, eta pelikula aberrikoak. (muy nazi)

Intoxikazioa infomatiboan oinarritzen zen, informazioa manipulatzearen, pozoitze informatiboa bidez lortzen zuten beren helburuetarako aitzakia.

4.3 Publizitate bideak: aldizkari ilustratuak eta irratia

Bi publizitate bide nagusituko dira garai hobetan:

4.3.1 Aldizkari Ilustratuak

1839 argazkilaritza sortu.

1869an Enmanuel Hermannek lehenengo posta txartelak salduko ditu, honek asmatu zituen. Hauek publizitarioak ziren, hotelak, fabrikak, iragarriak. 1910tik 20ra izan zen argazki publizitarioa inposatu zen garaia. Hamarkada horretan, argazkilari handiak agertzen hasi ziren, batez ere aldizkariak argitaratzeko negozioetan. Horretaz gain, panel, kartel eta bestelakoetan ere argazkiak txertatzen hasi ziren.

Zer dira hain zuzen Aldizkari ilustratuak?

1930eko hamarkadan sortutako argazki oso onak eta handiak, testu landu baina labur batekin. Erreportai serioak idazten zituzten. Oso argazkilari famatuak egiten zuten lan hemen, ikaragarriko arrakasta lortuz. Kazetaritza serioa egiten zuten oso argazki onekin eta kazetaritzaren urrezkoa aroa izan zen 40-50. hamarkadetan. Baina 1950. hamarkadan telebista etorri zen eta horrekin batera aldizkari ilustratuen gainbehera.

*Adibidez: Life 1936- Henry Luce- Time
VU- 1929- Lucion Vogel*

4.3.2 Irratia

IXX. mendean prentsa izango da komunikabide nagusia eta publizitatea ezinbestekoa izango da komunikabide berriak mantentzeko. 1929ra arte prentsa izango da nagusia, 1930 eta 1940 urteen artean irratia nagusituko da eta 1960ean telebista nagusitzen hasiko da.

20ko hamarkadan hasiko dira irratikomertzialak zabaltzen; 1922an AEBn 500 irratik instalazio zeuden eta hauek kirolak, musika, zerbitzu erlijiosoak, konferentziak igortzen zituzten hasiera batean. Europan irratik zerbitzu erregularrak beranduago hasiko dira, 1923tik 24ra, estatu batuen aurrean hartuz. Irratia entzutea modan jarri zen eta 30ko hamarkadan hau sendotu egingo da, eta komunikabide nagusi bihurtuko da, jende guztiak entzuten baitzuen.

Teknologia garatu zuena hasiera batean gobernuak izan zen. Lehen mundu gerra bukatzean, irratik bi bide hartu zituen; AEBn Gobernuak irratia bueltatuko dio ekimen pribatuari, gobernuak ez du finantzatzeko, askatasun handiago, eta horregatik beste finantziario bat beharko du, hau da, publizitatea. Europan aldiz, ez dio ekimen pribatuari itzuliko, beraz ez da publizitatearen beharrik egongo. Kalitatezko irratia izango da publikoa denetan, BBC, (suedian eta britania handian), baina pribatua denetan, sistema totalitarioetan (italia, alemania, urss) helburu propagandistikorako erabiliko da, beraz kalitate gutxiagokoa.

Frantzian irratik publiko eta pribatuak egongo dira. Espainiak publikoak gerra zibila bukatu arte ez da egongo, beraz hasieran pribatua baina ez da egongo. Hasieran publizitatearik gabeko irratik publikoak (radio nacional de españa) egongo da frankismo garaian eta publikoak publizitatearekin ere egongo da (la radio de movimiento y la radio de movimiento sindical). Irratik pribatua publizitatearekin egongo da bestalde (cope eta ser).

Irratik publizitatearen historia estatu batuetan hasiko da 20ko hamarkadan, Europan oraindik zerbitzu publiko eta pribatuaren kontuarekin jarraituko duten bitartean. Enpresari berriek berehala ikusi zuten medio berriaren aukera. Enpresariak programa ordaintzen zuten eta bertan bere produktua aipatzen zen, eta programari babeslearen izena ematen zitzaion.

1926 → NBC

1928 → CBS

Bi hauen arteko lehia izugarria izango da entzuleak lortzeko eta izarrak, orkestrak, kantanteak erabiliko dituzte hau lortu ahal izateko.

Beranduago, irratiko berezko genero bat sortuko da, Sopa Opera, irrati nobelak izango direnak. jaboian ekoizleek ordaintzen zituzten saio hauek bera beren produktuaren izena jartzen zioten. Etxeko andreen etxean zeudenean hauek entzun et produktuaren izenarekin geratzen ziren eta gero hauek erosi. Nobela hauen gidoiak aldatzen joaten ziren entzuleen gutunen arabera (ez da gaur egungo gauza, hemen jada egiten zen). Etxeko andreek beren iradokizunak bidaltzen zituzten eta kontuan hartu gidoia aldatuz.

Beranduago beste formula batzuk sortuko dira produktuak promozionatzeko, iragarki irakurriak besteak beste, disko dedikatuak, musikarekin lagundutako iragarki laburrak (jingle), kuñas (irratiko iragarkiak),....

Bi iragarle mota agertuko dira; maiz saltzen diren et merkeak diren produktuen fabrikatzaileen iragarkiak, eta produktu garestienak. Lehenengoek, Dei errepikakorrak, kantak erabil, mezu ez oso dotoreak erabiltzen zituzten. Bigarrenek, beste modu batera erabiltzen zuten irratia, programak erabiltzen zituzten iragartzeko. programa duinak babesten zituzten, tonu neurritsuagoa. Dena den, irratiko iragarkien iraupena luzea izango da.

Irratia entzuten zuen jendeak bere arazoetaz ahazteko, ihesbide gisa, fikzioa baitzen, gaur egungo serieak bezala. Irratia oso arrakastatsu izan zen 30 eta 40ko hamarkadan baina honen amaieran, prentsa indartu zenean beldurtu egin ziren, baijan koturatu ziren prentsa eta irratia konpatibleak zirela. Arazoa telebistarekin etorri zen, honekin ezin baitzuen konpetitu. 50ko hamarkadan indarra galduz. Gaur egun irratia europar aurrekontuaren %5-7 artean hartzen du bakarrik.

4.4 Publizitate Agentziak

XX. mendearen hasieran, erresuma batua zen munduko lekurik garatuena. Londres zen enpresa inportante askoren egoitza. Benson Limited agentzia garrantzitsua izan zen, bezero garrantzitsuekin. Enpresarik onenatarikoak Guinness. Agentzia honek egindako publizitatea oso umoretsua, adimenezkoa, zen eta 60ko hamarkadan Ogilvy agentziarekin fusionatu zen.

XX. mendean Londres izan arren potentziarik garrantzitsuena, lehenengo mundu gerraren ostean Estatu Batuek izan ziren potentziarik handiena, Londreseko publizitate salmentak murriztuz eta indarra galtzen joanez. Publizitatea bezala beste hainbeste arlo eta lan eremutan.

Frantzia ostera hobeto defendatu zen potentzia honen “diru gose” eta hedapenaren aurrean. Horren adibide da egin zuten akordioa, Havas eta Publicis agentziek. Frantziako publizitate merkatua ondo babestu zen, haien artean banatuz eta ez zioten utzi EEBri Frantziako merkaturuan sartzen.

1928 an Dupuyk, (enpresa gazte baten bitartez) Dononeren kanpaina sortu zuen eta oso famatua izatera iritsi zen, agentzia garrantzitsuenatarikoa izatera iristeraino.

Estatu Batuetan, 1917an AAAA sortu zen 111 agentzairekin. (American asociation of advertising agency). 1920ko hamarkadararte publizista autodidakta ziren,baina garai hartan unibertsitatetik pasatako pertsonak izango dira, eta agentziak irekitzen hasi ziren, “zientifikoagoa” bihurtu zen, prestakuntza handiagorekin. Agentzia honetaz gain, beste hainbat agentzia aipagarri izan ziren:

Nueva York

→ 1902 an autodidakta zen Alfred Ericksonek bere agentzia propioa ireki zuen. Agentzia berritzailea zen ikerketa sail potentente bat zuelako, bezeroa ikertzeko.

→ 1911an Harrison McCann ek ere bere agentzia ireki zuen

30ko hamarkadaren hasieran, bi agentzia hauek fusionatu ziren eta NY-en MacCann Erickson sortu zen. Oso bezero potenteak zituen (Rockefeller standar oil, Coca-cola...), eta eslogan oso potenteak sortu zituen. Adibidez: (*Things go better with coke*)

Gaur egun 5 kontinenteetako 130 herrialdeetan dago. Honekin batera, BBDO agentzia famatua sortuko da 1928an (fusio baten ondorio ere) eta 1907an DENTSU (munduko publizitate agentziarik handiena) Hoshiro Mitsunagaren eskutik.

4.5 Europan, kartelaren artea: Art Déco eta abangoardiak

1920. hamarkadatik aurrera, kartel komertziala asko aldatuko da europan (eeuu ez hainbeste). Estilo aldaketa eman zen eta hau honetan oinarritzen zen: Lan piktorikoaren kartel modernistatik, lan publizitarioagora pasatu zen artistikoak izaten jarraitu arren.

Gogoratu dezagun, Art Decó gerren arteko garaian eman zela. Garai honetako publizitate bideak, aldizkari ilustratua, irratia eta abangoardiak (futurismo, surrealismo, kubismo...) ziren.

- Zehatzagoak eta zuzenagoak ziren iragarkiak eta iragarritako produktua protagonista bihurtzen da.
- Eraginkortasun publizitarioa bilatzen du
- Iragarritakoa ezkutatu baino, protagonista bihurtzen du
- Irudia sinpleagoa egiten da eta abanguardia guztien eragina jasotzen du baina psikologia eta argazkigintzaren eragina.
- Eraginak: Abangoardiak, psikologia eta argazkilaritza

Hemendik aurrera, kartelgileak profesionalak izango dira eta hauek ez dute artea egingo baizik publizitatea.

1925 ean oso erakusketa garrantzitsu bat egon zen Parisen, munduko herrialdeen estiloaren aurkezpen eman egon zen, Art Decó-aren obrak eramanez.

4.6 Estatu Batuetan publizitate zientifikoa: Albert Lasker eta Claudia Hopkins

Albert Lasker (kontu exekutibo) Publizitate modernoaren aitatzat har genezake. 19 urte zituelan Lord & Thomas agentzian sartu zen hiru hilabeteko kontratutxo batekin 1898. urtean Hasieran ez zuen inolako lan profesionaletan parte hartzen baina 5 urteren burura parte hartze aktiboago bat lortu zuen. 8 urtera publizitatea modernizaziora eramanez, publizitatea agentziaren zuzendaria izatera iritsi zen. 1904an lortzen du agentziaren kide izatea (partner) 23 urte zituelarik 1912an agentziaren jabe egin zen. oso ideia aurrerakoiak zituen eta begi oso ona zuen jendea kontratatzeko. Homen konturatzen dira, bezeroak sormena dela erosi nahi dutena, eta kalitate ona eskaini behar zuen. Copy onenak kontratatzen hasi zen, besteak baina hobeto ordainduz. Horrela pasa zen publizitatea diru asko mugitzen hastera eta negozio handi bihurtu zen publizitatearen sektorea. Izan ere, batek soldatak igo zituenena, besteek ere soldatak igo behar izan zituzten. hauek erabiliko dute lehenengoz,

John E. Kennedy (copy, erredaktore) Polizia kanadarra zen, hau utzi eta AEBetara joan zen eta copy bihurtu zen. Reason Why teknika asmatu zuen (publizitate zientifikoaren bihotza). Salmenta argudioak ematen zituzten, erresistentzia guztiak gainditzeko testuak, esanez zergatik erosi behar zuten produktu hori konbentzitzen saiatuz.

Aipatzekoa da Kennedyk, Laskerri publizitatearekiko eman zion definizioa “advertising is salesmanship is in print”.

Laskerrek Kennedy kontratatu zuen bere salmentarako abileziagatik.

(Kennedyk Reason why asmatu zuen baina Hopkinsen garatu)

Garai honetan Cyrus Curtisek (jada famatua zena) Hopkinsen iragarki bat ikusi zuen eta Laskerri deitu zion kontratatzeko oso ona baitzen. Zeren eta Cyrus abszemioa zen eta iragarki hark alkohola probatzeko nahia piztu zion. Horregatik kartel hura eta egilearen talentua ikaragarria zela azpimarratuz kontratatzeko eskatu zion.

Hopkinsen onartu egin zuen lanpostu hura eta 1907 an astero mila dolar ordaintzen zizkion Laskerrek Hopkinsi.

Claude Hopkins (copy)

Pre-emptive claim (lehentasunezko apegua edo reclamo preferente). Produktu bakoitzak bere lehiakideetatik bereizten dituen faktore bat aurkitzea eta hori behin eta berriz berrerabiltzean datza.

Hopkinsi iragarritako produktua eta kontsumitzailea (publiko xedea) ondo ezagutzea gustatzen zitzaion. Konbentzitu zegoen populista izan behar zela. Bere ustez kanpaina arrakastatua zen bakarrik publizitateak exitoa lortzen zuenengan, eta horretarako kupoiak saltzen eta sortzen zituen aldizkarietan jartzeko. Horretarako aldizkari bitan iragarki berdina jartzen zion kode desberdinekin zeinek jasotzen zituen emaitza gehiago jakiteko eta horrela hurrengo salmentetan berdina egin ilustrazio eta titularrekin, ahalik eta arrakasta handiena lortzeko. Kupoiak azken finean kanpainaren arrakasta neurtzeko metodo bat zen.

Honek egiten du erreferentzia prozesu zientifiko bati, publizitate zientifikoa deituz.

5. Gaia: Publizitatearen berritzea

5.1 1945-1975

Garai honetan hasten da kontsumo gizartea, 50ko hamarkadatik 60ko hamarkadara, hazkunde ekonomiko handia gertatu zen, kontsumoan eragina izango duena. Gainera, 1955erako, bai Europa eta bai EEUU gazterian protagonismo sozial handia hartu zuten (lehen ume izatetik heldu izatera pasatzen ziren, ez zegoen gazte izateko etapa hau), eta urte hauetan gazteriak erosteko ahalmena zuten. Gutxi ziren ikasten zutenak, eta gehiengoak lan egiten zuten, horregatik erosteko ahalmena zuten. Hori dela eta iragarki askoren zentro edo protagonista bihurtu ziren. Berezko kontsumo mota bat sortu zuten, kontsumo gaztea, helduen kontsumoari kontrajarria. Jantzeko eta orrazteko eran desberdinduko dira, musika kontsumoa, eta bizitza estilo berri bat aldarrikatuko dute: hemen oso garrantzitsua izango da, arraza integrazioa, bakea, naturara itzultzea, artisau lana....

Erakunde erlijiosoak baztertuko dituzte baina ekialdeko erlijiotan bilatuko dute zentzua; budismoan, yoga, induismo,...

Beren gurasoek alkohola edaten zuten moduan, hauek beste droga batzuetara joko dute, anfetaminak, ..

Guzti honek eztanda egin zuten, era baketsu batean AEBan eta europar modu bortitzean 68ko maiatzean. Zine mota batek ere gertatu zena jaso zuten; Midnight Cowboy (1969) haien artean, oskar bat jaso zuten lehen pelikula X izan zen. Blow Up (1966) eta Easy rider (1969) beste askoren artean. Pelikula hauek garaiko ispilu eta bultzatzaileak izan ziren.

Garai horretako protagonista nagusiak:

- Guzti honekin Pop Up artea sortuko da.
- Mary Quant-ek minigona sortuko du
- Martin Luther King, beltzen eskubideak
- Do the right things, Spike Lee
- The Beatles
- John F. Kennedy, lehen presidente katolikoa

Momentu honetan AEB izango da munduko potentzia nagusia eta jendea orokorrean, gehiengo, WASP (white anglosajon protestant) izango da. Gizartearen aldaketa honek eragin handia izango du publizitatean, erredaktore judutarrak agertuz.

Giza eskubideen aldeko mugimenduen ondorioz, agentzia asko komunikate beltzari zuzendutako ekintzak egiten hasiko dira. Horretarako beltzak ere kontratatzen hasiko dira, eta Roy Eaton izango da kontratatutako lehen beltza. Hauei gehiago exigituko zaie eta oso zaila izango zaie lanpostu bat lortzea. Hau ez da beltzak integratzeko egiten, baizik merkatu handitzeko eta gehiago saltzeko iraultza honek genero desberdintasuna ere bereiztu zuen. 1880an emakume gehiago egongo dira emakume gehiago lanean 1940an baino. Izan ere, hasieran, lan hau ez da lan duin bat zen, soltada handia irabazten ez zena.

Mathilde Weil, Mary Compton, Alice Stodar, emakume guzti hauek beren agentzia propioa ireki zuten emakumeak izan ziren. Gero 1920,30,40 urteetan publizitatean lan duin bat izango da. Emakumeak egotea garai horretan lanean, ez zuen esan nahi agentzia horiek feministagoak zirenik.

Garai honetan sortuko da marketina. 2 mundu gerra bukatu ondoren, enpresen ekoizpen maila oso handia zen eta merkatuak ezin zuen hori jasan, merkatuan ezin eusterarte. Ondorioz, lehia gero eta handiagoa izango da, eta publizistak konturatuko dira produktua ez dela hain garrantzitsua, bezeroa baizik. Marketin mix-a sortuko da ere. Panorama handi baten zati izango da marketina. Guzti honi esker, publizitateak urrezko aro bat biziko du. Aipatzekoa da, publizitatean gastatzen ziren gastuak oso handiak bilakatu zirela.

5.2 Publizitate politikoa

1952 publizitatea sendotuta eta garatuta egongo da garai horretarako. Politikariek publizitatera joko dute beren kanpainak egiteko. Telebistaren botereaz ohartuko dira politikariak jende askorengana heltzen zelako eta publizitateak pertsuasioari buruz asko zekien. → Publizitate zientifikoa

Eisenhower, guda eroi bat izan zen, erdi leloa zirudien eta publizitate kanpaina bat burutu nahi zuen jakintsu eta azkar itxura sortzeko helburuarekin. Horretarako publizitate agentzia batengana jo zuen, Rosser Reeves (Ted Bates agentziakoa) rengana hain zuzen. George Gallupi galdetuko do zeintzuk diren amerikarren kezkak (zergak, ustelkeria, bizi kostua handitzea,..) Reevsek orduan galdera batzuk sortu eta gendeari pasa zizkieten. Horrela eisenhoverrek bazekin zeintzuk ziren amerikarren kezkak eta bazirudien beren arazo guztiak konpondu zituela.

Publizitate kanpaina "faltsuena" 1964ean izan zen, iruzur handiena. Honen egilea William Bernbach (DDB agentzia). Lyndon Johnson presidente hautagaia izan zen, eta Bernchek egingo dio bere politika kanpaina. Honek nahi zuena, aurkaria satanizatzea zen, deabru bat bezala uztea. → Publizitate kreatiboa

1979 - Saatchi & Saatchi agentziak egin zion kanpaina politikoa Margaret Thatcherri (kontserbadorea) eta irabazi egin zuen.

1981 - François Mitterrand presidente izatea lortu zuen Jacques Seguelak bere kanpainaren bitartez.

Publizitate politikoan benetan betetzen ez diren gauzak prometitzen dira, baina produktua bueltatu dezakezu, behin bozka eman duzunean ez.

5.3 Publizitate bideak: telebista

2 mundu gerra egoerako egoera gaindituta, telebista garatuko da eta honekin batera publizitatearen urrezko aroa. 1950an AEBetan 1milioi telebista zeuden eta Britainia handian 14.000 (europa atzeratuta). Hasieran tv pribatua izango da hasieran eta iragarkiak beraz emititzen ditu, hau finantzatu ahal izateko. 1953an AEBetan 15miliara igoko da zifra, esaten da, astean 100.000 aparailu saltzen

zirela. Orduan sortuko dira ABC, NBC, eta CBS. Gero tv publiko izatera pasa zen (BBC). 1960an etxe guzteitan zegoen tv jada, eta 1965ean kolorezkoak erosten hasi ziren. hasieran oso garestiak ziren, baina merketzen joan zen neurrian, jende erosten joan zen.

Tb pribatua entretenigarria izango da, populista,...aldiz publikoa informatiboagoa. Momentu honetan hasi ziren hitz egiten tb eraginei buruz eta Kennedy presidentzara heltzea tb eraginetako bat bezala ulertu zen.

Hazell Bishopek proposatu zuen, telebista errentagarriagoa zela telebistako denbora tarte txikik antolatu eta spotak sortzea hauekin tartekatzeko.

5.4 Estatu Patuetan, publizitate sortzailea: Rosser Reeves, Leo Burnett, David Ogilvy eta William Bernbach

Rosser Reeves: bere ustez publizitatearen helburua saltzea zen. Asko oinarritu zen Hopkkinsen ideia eta idazkietan. Oso argi zeukan iragarki batek produktuaren balioa erakutsi behar zuela. Bere ustez originaltasuna arriskutsuena zen publizitatean. Produktuaren balioa erakutsi, ez kreatiboaren adimena. Familia metodista batean hasi, otoitz egitean sinesten zuen. Bere abiapuntua, errepikapena, ez kreatibitatea. Beraz, bere iragarkiak oso errepetitiboak. Iragarki ez oso onak errepikapen askorekin hobe iragarki on bat eta ez errepikakorra baino.

USP: Unique Selling Proposition:

1. Produktua oso ondo analizatu. Publiziztsak jakin bear zuen produktuak kontsumitzaileari ematen dizkion onurak. Ikerketa prozesu bat zen. Probatu analizatu eta onurak jakin.

2. Argudio bat zehaztea. Analisiaren emaitzak ideia batean laburtzea, argudio batean. Behin ikerketaren emaitzak argudioa: zehatza, paregabea eta saltzeko balio duela.

EEBBtan, publi. Kreatiboa: creative revolution eta Madison Avenue. Wiliam Bernbach, Dvid Ogilvy eta Leo Burnett.

EEBBtan publizitate kreatiboaren sorrera. Madison aveninu - n munduko publizitate agentzia garrantzitsuenak daude ya (1950-1960) . Hiru agentzia handi: (The old lady/dama dama zaharra) JWT, Resor eta Lansdowne (emakumea) agentziari garrantzia lortu; McCam-Erickson CocaCola eta Francisco Franco cliente famatuenak . Francok (1964ean agentzia kontratatu USAn zuen irudia hobetzeko); eta azkena Young & Rubicam (Philladelphian sortu baina NY-kera mugitu garrantzia lortu zuenean). Hirurak oso agentzia handiak . Boutique creatiboak sortu: jaiotzean sormenean soilik zentratzen ziren agentziak.

McCann Erickson, 1930an Coca Cola eta bere irudia hobetzeko 1964an Francisco Francoren kanpaina egin zuen EEBBtan Young and Rubican 1966an sortu zen,

Boutique kreatiboa: ez zerbitzu osoko agentziak, bakarrik kreatiboak. Ted Btes, William Berncah, david ogilvy, ...

William Bernbach: Iraultza sortzailean garrantzitsuena, DDB (Doyle Dane Bernbach) Agentzia. 1949 sortu, fundatzaileetako bi Grey (juduak) agentzietatik etorri , bezero judutarrak . Ez zitzairen

gustatzen produktua asko analizatzea , esaten zuten horrek sormena hiltzen zuela. “the most important thing is to be fresh and original”. Umorea erabili, egia esan eta komukatzaien iteligentzia errespetatu; “nothing makes a bad product fail faster than a great advertising campaign”. Merkatu ikerketak eta psikologoak ez zituen erabiltzen, baina bai sormena. Dupla kreatiboa sortu zuen, (arte zuzendaria eta copyright-a). biek batera sortu ideia, lehen ardurapean zuzendari kreatiboa zen. Berarentzat publizitatea persuasioaren artea zen.

Koening eta Krone ekin talde kreatiboa egin eta Think small kanpaina egin zuten, bera zuzendari kreatiboa izanda. Desabantaila abantaila bihurtu zuen. Atera zenean iragarkia 19. 000 kotxe saldu ziren, kanpaina ondoren 1,6 milioi.

Koening eta Krone ekin talde kreatiboa egin eta Think small kanpaina egin zuten, bera zuzendari kreatiboa izanda. Desabantaila abantaila bihurtu zuen. Atera zenean iragarkia 19. 000 kotxe saldu ziren, kanpaina ondoren 1,6 milioi.

David Ogilvy: Estatu Batuetara emigratu zuen. Ingalaterrako eskolarik finetarikoan ikasi ostean. Aipatu beharra dago Oxfordetik bota zutela nota txarrak ateratzeagatik. Itxuraz, altua eta sofistikatu zen.

Lan ezberdin pila eduki zituen: sukaldari, atezain, nekazari... eta azkenean amaitu zuen Galupentzat inkestak egiten. Ikasketa horren ondoren, bere agentzia probatua eta pertsonala ireki zuen New Yorken “Ogilvy and Mather” 1948. urtean. Negozio txikia zen hasieran, arrakasta gabekoa. Baina bidean, Hathawy shirt enpresa agertu zen, hauen marka basikoaren kontzeptuari aldaketa bat emanez. Marka= Brand buelta bat emanez =Branding (marka irudia edo produktuaren irudia aldatzeko).

6. Gaia: Publizitatea XX.mendearen azkenaldian eta milurteko berrian

6.1 1975-1999 eta 2000 urtetik aurrera

Jordi Lloret Smartphone eta gizarte likidoaren (gaur egungo gizartean gure arteko binkuloak ez dira hain estuak eta gure sineskerak ere ez dira hain egonkorak, dena aldatzen doa izugarriko abiaduran. Lehen bizitza oso zurra zen, egunerokotasun eta ohitura berdin batzuekin jarraituz) inguruko hausnarketak egin zituen gaur egungo filosofoa izan da. Zuzentasun politikoaren ere harreman zuzena izan zuen, gauzak esan behar dira, baina esaten duzun moduaren arabera erretratatu geratzen zara.

Leon Wieseltier honen esanetan: internet es el mayor asalto a la atención humana jamás diseñada, es una guerra contra la atención, contra el tiempo ante esta ola de tecnología hay que resistir, el acto más revolucionario que uno puede realizar fuera de la política es ralentizar la desaceleración: slow movement (gaur modan dagoen mugimendua da, dena lasaitzea, slow food,... gaur gauza asko egin nahi ditugu, dena korrika eginez eta azkenean ez dugu ezer ondo egiten, dena erdizka, azkar eta

gaizki). Gaur egun asko kostatzen zaigu zerbaiti denbora eskaintzea, uste dugulako denbora joaten ari zaigula eta horregatik ez dugu aprobetxatzen.

Markus Gabriel, honen esanetan; Silicon valley eta sare sozialak kriminalak dira, esplotatzen gaituzte. Gaur egungo tabakoa sare sozialak eta internet dira, ez gara kontziente egiten gaituztenaz, egunero ordu erdi dedikatzen diogu, baina kontsumo honek gehiago eskatzen dizu eta engantxatzen zara, azkenean denbora hau ez duzu aprobetxatzen edo beste zerbait egiteko erabiltzen eta frogatuta dago gure burbuinean eragina duela.

6.2 Marketina

60ko hamarkadatik 80ko hamarkadara, marketina sortu eta garatzen da. 2mg bukatu eta ahaztuta zegoen jada, kontsumoa piztu behar zen eta jendeak gauzak behar zituelako erosten zituen. Asko kontsumitzen hasten dira, eta hemen sartzen da jokoan marketina, kontsumitzen erakusten saiatzen hasi ziren. Edward Bernays (Freud en iloba) pentsatu zuen, jendeak beharrak asetzeko erosten bada ez dugu negozioerik egingo, baina desirak asetzeko erosten hasten bada jendea? hauen mugagabeak, amaigabeak dira. Produktuak jada ez dira gauza fisikoak bakarrik izango, sinboloak izango dira, estatusa erosiko balute bezala. Zoriontasuna, estatuta, prestigioa,...Hemendik abiatuz, kontsumitzailea hobeto ezagutzeko beharra zuten marketiko exekutiboak, kontsumitzaiearen psikologia landuz.

Arnold Mitchell (VALS) Values and Life Style kontzeptua garatu zuen; kontsumitzaile mota ezberdinak daude, eta desberdintzen dira dituzten baliabideengatik eta dituzten motibazioengatik. Hiru talde bereiztu zituen; thinkers/ believers, achievers/strivers, eta azkenak experiencers.

1. **Thinkers:** Idealetan motibazioa bilatzen dutenak, zentzua bilatzen dutenak
2. **Achievers:** Lorpenak maite dituztenak, arrakasta erakustea
3. **Experiencers:** abentureroak, arriskua maite dutenak, jarduera fisikoa maite dutenak, eta bere burua adieraztetik bizi direnak.

Horretarako kanpianak ezberdinak egiten hasi ziren talde edo kontsumitzaile ezberdinentzat.

Jack Traut et Al Ries, 1981 → The battle for your mind → Posizioning: produktuak ez du lekua lortu behar merkatuan, baizik eta kontsumitzailearen buruan.

6.3 Publizitate bideak: Internet

Munduko armiarma sarea da. 1969an sortu zen, Arpanet izenarekin, estatu batuetan. (Advanced, research, projects, agency network). EEUUko militarrek sortu zuten eta 4 unibertsitateen arteko elkabatatuta bat bezala hasi zen. (Stanford, U california UCLA eta Utah).

Argi dago internetek publizitatearen historian aro berri bat hasi duela. Bai komunikazioaren historian eta baita publizitatearen historian, oso komunikabide garrantzitsua da eta komunikatzeko era aldatuko

du betiko, internetek ez du ezer asmatu, baina momentura arteko guztia erraztu du. Orain mundua globala da. Bere abantailak eta desabantailak ditu, logikoki. Herri ezberdinen arteko mugak gaintzen ditu, adierazpen askatasuna eskaintzen du ere, kontrolatzeko oso zaila delako, badago mundu ilun bat interneten. Internet proiektu militarra izan zen hasiera batean. Guregan eragina izaten hasi da, 1998-2000 urtetik aurrera, baina sorrera, 1969an. Gaur egun, 3 milioi erabiltzaile baino gehiago munduan, Facebook-ek milioi eta erdi erabiltzaile

Interneten abantailak: Herri ezberdinetako mugak gaintzen ditu internetek gaur egun publizitate informatiboaren buelta suposatzen du, ahalbidetzen duelako edozein informazio jasotzea. Modu dohakoan eta izugarritzko abiadura eta bat-batekotasunarekin. Informazio horretara heltzea erraza, azkarra eta eroso da, edozein momentu eta lekutan sartu zaitezke eta nahi duzun informazioa bilatu dezakezu. Adierazpen askatasuna (erlatiboki) ahalbidetzen du ere. Horretaz gain, elkarrekintza bultzatzen du.

Erostea, beraz, oraindik eta azkarragoa eta errazagoa da, hau oso garrantzitsua da publizitatearentzat. Orain, banner bat ikusiz zuzenean egin daiteke. Posibilitatez beterik medio bat da publizitate eta kontsumoarentzat.

- Publizitatearen abantailak gaur egun: Irudiak, bideak, audioak, estekak, zabaltzeko aukera ematen digu. Youtube (2005) ere publizitatea egiteko modu berri bat hasi zuen. Publizitateak zuzenean mezuak zure publikoari edo interes hori duenari aukera ematen dizu, baita inpaktu zenbakiak kontrolatzea errazten du.

Interneten desabantailak: Alde txarrak ere baditu; Alde batetik pribatutasuna eta segurtasuna konprometitzen ditu internetek. Fake news, haters, Oraindik mundua ez da alde globala, jende askok ez dauka interneten sartzetik (herri atzeratuak). Beste arrisku edo desabantaila bat, konpetentziak ere oso azkar eta erraz ikusiko dituela gure iragarlearen publizitatea. Egia da, erraza da eroste potentziala hainbeste informazio artean galtzea. Pasaden urteetan, zentsura zen desabantaila. Orain, berriz, informazio gehiegi dago, zaborra den informazio asko dago, bi horiek bereiztea da erronka berria.

6.4 Publizitate agentziak eta konglomeratu handiak

1980ko hamarkadako publizitatea batik bat, estrabagantea izan zela esan dezakegu, Yuppies mugimendua (young urban professional). Dirudun jende gaztea eta nahiko berekoiak ziren, hippien kontrakoa. Lanari ere garrantzi handia ematen zioten, kotxe handiak erosi ahal izateko eta haien aparientzia klase sozial altukoa dela irudikatzen. Kokaina publizitatearen munduan asko kontsumitzen zen, ez zekitelako zein arriskutsua eta zein efektu zituen, eta hau lan egiteko kontsumitzen zuten.

Hippien zentrua batez ere EEBB, NY eta Madison Avenue izango dira eta Londreseko Soho auzora transladatuko da.

Garai honetan gainera, jai bat prestatzeko gaitasuna, publizitate agentzien esku uzten zen, eta honen prestaketa eta aurkezpenaren arabera, agentziaren erreputazioa hobetu zitekeen.

Britainia handia osoan, hamarkada batean publizitatean gastatutakoa %315 gehio izan zen. Hamarkada honetan, publizitate enpresa handiak elkartzen, fusionatzen hasten dira, bat egite erraldoien urteak izango dira. Horretaz gain, Burtsara ateratzen dira (going public), sukurtsalak irekiko dituzte munduko hiri nagusietan, mundializatzen hasiko dira. Laburbilduz hiru gauza garrantzitsu gertatu ziren hamarkada honetan: Fusio erraldoiak, burtsa ateratzea eta globalizatzea.

Bi hamarkada hauetan zeuden publizitate agentzi nagusiak:

- **Saatchi & Saatchi:** (enpresa britainiarra) oso garrantzitsua zen beste agentzia batzuk erosten hasi zelako. EEBBetako handi bat, Backer & Spiehogel erosi zuen 100milioi dolarren truke. Munduko hirugarren agentziarik handiena bilakatuko zena erosketa horren ondoren. Handiena Dentsu (100 urte lehenago sortua) eta bigarrena EEBBetako Young and Rubican. Hirugarrena S & S. Enpresak erosten jarraituko du eta Ted Bates (Eisenhower presidentearen kanpaina egin zuena) agentzia erostea lortuko du.
- **Bartle Bogle Hegarty** (BBH, Britania Handi, London, 1983) Levisen galtzentzat egin zuen kanpaina batengatik egin zen famatu.
- **Chiat / Day** (California, 1968), surfero lasaiak. Haien bere burua ikusten zuten pirata basatiak bezala eta uste zuten haiek zirela Madison Avenuko etsaiak erasotzen. Honen iragarki ezagunena 1984ean egindako bat izango da. 1948an idatziko du George Orwellek 1984 liburua idatziko du, etorkizun distopiko bat asmatuz, Gran Hermano hemen oinarrituz. Honetan oinarrituz ere, 84ko iragarkia izango da. Iragarkia bakarrik behin iragarri zen, Super Bowlean, oso garestia izan zen eta pelikula itxura du, ez iragarki itxura. (lehenengo egunetan 70.000 ordenagailu saldu zituzten EEUU-etan, espero zutenaren %150 gehiago). Bertan Leek Clow-k lan egiten zuen eta bertan bere buruarentzat kanpainak publizitario bat egin zuen eta agentzia honi bera kontratatzeko eskatzen egon zen urte batez (Hire the hairy).
- **Euro RSCG** (Paris): Erresuma batuaren ondoren, Frantzia zegoen agentzia publizitarioen negozioirik handiena. Publicis eta Havas ziren talde handienak garai honetan. Oso zaharrak. Bigarren gerraren ondoren bi talde hauek ilegalki frantziako bezero garrantzitsuak eta frantziako merkatua banatu zuten, agentzia amerikarrak frantzia ez sartzeko (diotenez). Jack Seguela, "Fransua Biterranen" bi kanpaina egin zituen. Honen esanetan 3 publizitate mota zeuden, amerikarra, frantsesa eta britainiarra. Ingelesek egiten duten publizitatea, buruarekin egiten dute bihotza ukitzeko (burutik bihotzera), Frantsesek, bihotzarekin burua ukitzeko (bihotzetik burura) eta Amerikarrek buruarekin egiten dute eta ukitzen dutena kartera da (burutik poltsikora). Diotenez Frantsesen pentsamoldeak xarma unibertsalagoa dute, horregatik irabazten dituzte jaialdi internazional eta sariak. Liburu bat ere idatzi zuen "ez esan nire amari publizista naizela, berak pentsatzen du burdel batean pianista naizela". Azkenean, Havasek erosi zuen Segelaren agentzia. Publicisi buruz, 1972ko gau batean, kanpo eliseoek sute bat jasan zuten bertako agentziak errez Maurice Levy, Publicis agnetzian sartu zen suteak dokumentuak erre baino lehen. Hainbat gauza berreskuratu zituen eta 3 egunetan

berriz agentzia martxan jartzea lortu zuen. Publicis agentzian lan egiten zuen gizon honek, gaur egun talde guztia zuzentzen du. Aipatu beharra dago, Sachi and Sachi eta Leo Burnett, Maurice Levy ren (Publicis-en) esku daudela.

Hau guztia 90ko hamarkadan bukatu zen, 1987ko krisiaren ondorioz.

1990eko hamarkan hasi zen Italian (shock advertising) joera. Olivero Toscani - Benettonentzat egindako kanpaina probokatzaile batean, shock advertising joera horri bidea bidea emanaz. Arreta pizteko eta zirrara sortzeko sortuak, batzuetan zirikatzailea, eztabaidagarria, polemikoak ... ziren.

Calvin Klein Jeansek egindako iragarki batean, modeloek erabiltzen zituzten posturak nahiko probokatiboak ziren, shock porn deitzeraino batzuek. Nahiko iragarki komentatua eta eztabaidatuta izan zen, shock advertising terminoari erreferentzia eginez.

- Beste mugimendu bat Adbusters. Kanadan sortutako Adbuster (iragarki suntsitzaileak) 1989an sortu zen eta hauek subvertising egiten zituzten. Kontsumoa eta publizitatearen aurka dagoen mugimendua, kontraesankorra izan arren.

Gaur egungo (2000-2018) publizitate talde handiak:

Ezin izan dituzte geldiarazi mega fusioak eta opa erasokorrak.

Adibidez: 1987an Martin Sorrell (tiburón de las finanzas), Wpp taldeko nagusia zen. Berak irentsi zituen TWT (erosiz) 125 urte martxan zeraman agentzia, boteretxua izan arren 566 milioi dolarren truke.

Gaur egun munduan 6 publizitate talde handi daude: (boterearen arabera ordenatuak)

WPP: Londresen sortu zen 1985ean (Martin Sorrell zela nagusia). Inperio globala dela esan beharra dago, 200 mila langile, 400 agentzia, 3000 bulego, 112 herrialdetan. Hala ere gaur egun krisian dago, ez du diru askorik irabazten eta 2018ko apirilean Martin Sorrell lana uztera behartuta ikusi zen. Talde handi hauen zuzeneko kompetentzia nagusia, sare sozialak, internet... (Sillicon valley). Honen barruko agentziak:

- JWT
- OGILVY
- Y&R
- GREY

Argi utzi behar da ez daudela inongo pobresian murgilduta, baina ez dutela behar beste diru irabazten.

OMNICOM: Amerikarra, New York eta jabea John Wren. 2013 an Publicis eta Omnicom fusionatu ziren, baina ez zutenez ongi funtzionatzen berriz bereiztu ziren, bezeroan arteko liskarren ondorioz...

- BBDO
- TBWA

- DDB

PUBLICIS: Frantzia sortua Maurice Levyren eskutik.

- LEO BURNETT
- PUBLICIS
- SAATCHI & SAATCHI

INTERPUBLIC GROUP (IPG): Estatu Batuetan, NY, sortua. Michael Roth nagusia.

- Mccann Erickson

DENTSU: (Japonen 1901 ean)

HAVAS: (1935 Frantzia)

Gaur egun publizitatea bizitzen ari den joera aldaketak:

Hiru joeratan banatu dezakegu: (Iragarkietako ezaugarriak)

1. Nahastuak, heterogeneoak... dena nahasten dute
2. Batzuetan (ez beti) gure publizitateak bere erantzukizun soziala asumitzen du.
3. Egiazki kreatiboa dela/ Zinez kreatiboa dela (onak direnenan)

*Zer da gerrilla marketina? Publizitate teknika ez konbentzionalak erabiltzen dituen publizitatea.
Ustekabean harrapatu behar du kontsumitzailea, kalean, parkean, zentro komertzialetan... Merkea
izan behar du.*